†

# Dominica Quinta de Quaresma.

Tulerunt ergo lapides ut iacerent in eum. Ion. 8

Gaur, ene fiel maiteac, daucagu Jesu Christo Evangelioan, empeñadaric persuadicten Judegubai, zala Mesias eguiazcoa, anunciaduba Profetacgaiti, Aita eternoen Semea, eta beste egui importante batzuc: eta daucagu igualquiro Judegubac empeñadu ric ez sinisquetan berari. Orregaitiye explicadu zan Jauna aimbeste Claridade, eta eficaciaz, ecē esan eusten modu onetan: edo nic diot eguia, edo faltetan dot beragana: eguia esaten espa dot, naz gurentija, eta vidisquiro pecataria; baña noxe zube tati convencitu naique pecaturic chiquinera ere? Badaucazube norbaitec cezer acusadu, aguertu eguizube ordu orean; baña eztozube manifestetan, cegaiti daquizube eztaucadala. Orain, bada, esaten deuste Jesu Christoc estuguetaco gueiago: nic eguia badijot predicadu, eta esacusten deutzubedanagan, cegaiti sinis quetan esteustazube? Baña nic ondo daquit motivoa, esan eusten: danac Jaincoarena, auda, dana bere Seme adoptivoa graciati, entzuten ditu Jaincoaren vozac ifinteco bere biotzean, eta obre taco euraicon forme; baña zubec estituzube entzuten fin sobera no onegaz, entzuten badituzube ere nire aoti, cegaiti zubec etzare Jaincoen Semeac, espada Diabruben Semeac, ez natura lezaz, espada imitacinoz, bada guradozube cumplitu bere deseo aquin.

Eta entzun euben Judegubac reprehensino ain claru bat, indignadu cirian Jauren Contra, eta razoaric ez eugue nian, cegaz erantzun, apeladu euben insurietara, eguiten dau

bera leguez ascoc, aguertcen dirianean convencidubac. Ezto
gu gue ondo esaten, zu zarala samaritano bat, au da, Judi
guben religinoen despreciadorea, eta etsairic cruelena, sama
ritanoac leguez, edo beintzat, daucazula Demonioren bat zure
obreen eta zure doctrinien autoretzat? Ecusi eguizube, ene fie
lac, ce blasfemia! Jaincoac libradu gaguiala viotz embidioso,
eta sobrerbiosetati, cegaitic euren aoan virtuteac irango dira
vicioac. Advertidu eguizube orain Jesu christoren pacien
cia, eta compostura bere respuestan: Nic eztaucat Demo
nioric bapere. Beguiratu eguizube, cē mansedumbreaz erant
zuten deuten. Ycasi eguizube guizonac, nola disculpadu
zarien bear danean, sencillamente, eta ez injuriaguin.
Nic estaucat demonioric bapere esaten deutse Jesu Christoc,
ez nator ere despreciatecera ceuben Religinoa, ecē nas Hebreoa
zubeec leguez; nator bai emotera honrra nire Aita Celesti
alari.

Egui gustiaz asegurcetan deutzubet, prosequietan dau Jesu
Christoc, deseoz convencietaco, eta desengañetaco fariseoac,
egui gustiaz asegurcetan deutzubet, eztala bacarric eguiarcoa
nire doctrina, ezpada ece obserbetan davenac fielmente
eztabela ecusico inoz eriotcea: emen izan zan ostera inju
rien berristatcea: orain bai, esaten deutse Escribac, et Fari
seoac, orain bai, esaguetandogula ondo daucazula Demonio
ren bat, eta razoia da claruba: Abrahan ilzan: baita Pro
fetac ere ilririan; oneec gorde euben Jaincoen doctrina, eta
legue santuba: nola bada diozu zuc, obserbetan davenac
zure doctrina, estavela ecusico eriotzaric: Zara zu andia
goa, Abrahan gure Aita baño, ilzana ya? Noztzat euquiten
zara zu? Zara mentura munduco Criadorea, eta bides

quiro Jaincoa immortala? Eta izan zan Judeguben argumentuba; baña claru dago bere falsedadea eriotza verbien equivocoan, bada Jesu Christoc verba eguin eben animien eriotzien, esan ebenian, gordetan ebenac bere doctrina ez ebela ecuzico eriotzea, au da culpeen eriotzea. Infernuco eriotz eternoa, eta au da fedeco eguia, confesatuba, eta sinistuba Judeguba gaiti ainac gaite, euquenac justotzat gordetan eubenac Jaincoaren legue santuba: baña euroc ez euben aitu guza izan sen tidu espiritual onetan, ezpada gorputeen eriotcien sentidu materialegan, euquiteco pretesturen bat, contradecietaco.

Abrahan ceuben Aita, esaten deurte Jesu Christoc, alegra du zan, eta chito aro, anunciadu jatonian ecuzico ebela nire incarnacinoen demporea, eta etorrera humildiena redimiteera munduba; ecusi eben eta gueldìtu zan gozoz beteric. Emen verba eguin eurten Jaunac, Aita Abrahanec euqui eben vis tien Meriaren etorrerien gañean, ez corporalmente ezpada espirituban, sacrificadu ebenian bere seme Ysac, eta bere le cuban vildots bat, dio Sn. Juan Chrisostomoc, baña emen izan zan barriro Judeguben irritacinoa, aiquetan eubela ba carric vista Corporalagaiti; Oraindio eztaucazu berroguetà amar urte, esan eutcen, eta ecusi ceben Abrahan gure Aita, ecē da ibzana iru milla urte baño gueiago.

O eta cembat ichuquetan daben pasino batec! ez equijen Ju deguba, euren Aita Abrahan izan zala Profeta eguiascoetati bat, ceintzubei revelatan eurten Jaincoac misterioric andienac? da disputa baga. Cegaiti, bada, pensadu ezin eiguien verva eguiten eurtela Jesu Christoc sentidu misteriotsen baten, es pecialmente aguertcen ziñanean convencitubac gustian? hay, ene

fielac, maliciac betetan dan gurtia parteric guertoenera, eta orregaitijo, ez euben aitu gura izaten Judegubac, sentidu agan ezpada, emoten euteneac ocasiñoa, al beuben contradecietaco Jesu Christoxi; Baña aitu eguizube bere respuesta, aseguretan deutzubet, eta juramentu eguitendot egun gurtiac, naceta arcez lenago Abrahan baño, cegaiti naz ab eterno Jaincoa nire Aita eternoaz, eta orain natox ceuben Aita Abrahanec eguin eutzaben profecien cumplimentuban rescatatcera linage humanoa Demonioen mendeti. o beneficio parebaguea! Baña o guizoneen ingratitudea! aguentcen ezxiala Judegubac conventituric respuesta ain amorosoaquin, eta sufritu ezin ezxiala euxac, irac beteric artucituben arriac botetaco Jesu Christoxi, eguiten eubela blasfemotzat; baña Jauna, despedictan dau Evangelistac, escutatu zan bere omnipotencia divinoaz, eguiten zala invisiblea bere enemigoen furiara, eta urten eben templuti.

Au da, ene fielac, Evangelioco letria, eta gurtiti daroa nire atencinoac azquenengo clausula, zeñec dijuan onela: Indignaduric Judegubac Jesu Christoren contra, beteric iraz, eta gorrotoz artu cituben arriac arrica eguiteco, blasfemoari leguez, eta quentceco medio onegaiti vicia: Tulerunt ergo lapides ut iacerent in eum. O delitu icaragarria! deadar eguiten dau Menopolico Obispoac; terrible facinus; baña andiagoa dudabaga cometictan dau bena Christinadubac; ¿Cer dira aimbeste culpa, prosiguictan dau, eta au berau dio Fr. Luis de Granada 6. Cer dira aimbeste, eta culpa ain grabeac, arriac ezpada, ceintzuquin aspiratuten daube, esan ebena leguez Apostolubac, catolicoac Jaincoen Semea, eta euren aldeti dan partes, gura deutce, Judegubac leguez, quendu barriro vicia. dongura, eta chito dongura zan alaco procedera Judeguben artean; baña eguin daguiela beste

dimberte Christinadubac, redimidubac izanic Jesu Christo zen odolaz! Au da, dio Granada V. Sufrite erin agoa.

Deseo, bada, ene fielac, guztioc ala justubac nola pecatariac gorde gaitian alaco excesoetati, proponiduco deutzubet pecatu mortalen ichutaruna, eta causetan ditubean galguerac animetan, esanguetandala bere malicia, procuradu daguien, diriñac justo ac jarraiguetea ari dauben videa, apartetan ertiriala iños bera gandic, eta euren desgraciaz pecatari diriñac, eta aurquiguetan culpa mortalean, billatu daguien, berantce chiguiñe bagaric eu zen arrepentimentuba, convertietandiriala eguiaz Jaunagana, resolucino firmeaz ez botetaco arri gueiago Jesu Christori. Da Batea, animo firmeaz ez iñoz viurquetaco ofendituera gra vemente.

Eta berte gauzaric pecatu mortala, espliquetan daubena leguez letra Sagradubac, eta Auzaco santubac, injuria bat, eta des precio practicoa baño, eguiten daoena pecatariac Jaincoarena bera zena; alaco modubam ece, ifiniric Jaincoa alde bateti, eta criatu ra berteti, emoten dautzo arpeguia, eta biotza Criaturarari, eta sorbaldac Jaincoari; da gura izatea izan leenago Satanasen esclavo, Jaincoaren Seme baño; da estimetea gueiagogan Demonioa, Jaincoa bera baño; da renunciatzea bere gloria, eta herencia, eta escogitu leenago Ynfernuba, Ceruba baño; da declaretia guer rra Jaincoaren eta bere exercito Celestial gurtien contra, eta servitzea Luciferen banderaren azpian; da oiñarpiratzea Jaincoen semea; da lotzeia, eta Crucifiquetea barriro Jesu Christo; da saltzeia ostera, Judas infameac leguez; da ichi Jesu Christo Barrabasegaiti, edo interes bil bategaiti edo deleiteagaiti; beinguan esateco, eta ez guchiago S.n Agustin beti andien

autoridadeaz baño, da ucaquetia practicamente, dagoaria Jaincoa. O maliciaric andierra!

Ez tago terminoric, cegaz esplicadu, pecatuba mediante Jaincoari eguiten jacon agravioa, queiten esan deiteguean pecatu mortalagaiti, dala Jainco infinito baten ofensa, eta alde onetati agravio bat, ofensa bat infinitoa edo casi infinitoa. Baña, o dolorea! ecē gure miseria da alacoa, ecē comprenditu ecin dogula gue Jainco baten grandeza, dana ofendiduba, esautu bere ezin dogu alde onetati bere ofensien anditasuna. Monstruo baten anditasuna, oñartarri baterna, edo venenoric activoren batena, ezin esautu daiquegu obeto, causetan ditu ban galquera icaragarriacgaiti baño; icusi daigun bada pecatubac eguiten dituban galquerac, eta eurac gaiti ecusico dogu bere indar icaragarria, eta venenoa.

Pecatubac eguin eben leenengo galquera izan zan ez gu chiago Aingueruberan euracan baño. Ygo eguizube considera cinoaz ceruira, contu eguizube Aingueru batec erean eta ifini zaubela euren erdian: Cer icustendozube Palacio dichoso agan? Urrezco berrogei milla silla baño gueiago, eta diamantescoac eta Zafirozcoac larogei milla baño gueiago ecusico dituzube utcic. emen jarri zan Lucifer, bertean Beelcebu, an egon zan Astaroth, eta onela berteen. Cerda au? Baña cer izango da? Pecatu mortalen despoju tristeac, eta reliquiac. Entzun eguizube guertacera aitu daguizuben obeto.

Jaincoac criadu cituban Aingueruac, berte aimberte eguzqui legaez, coronadu eguien ceruba; edarragoac milla vider eguzqui material au baño, alegretan davenac mundu gusti au; andiagoac jaquituzian berte criatura gustiac baño; espiritu purubac; immortalac; eta gustiz gañean Santissimoac, dio Profeta Ezequielec. Baña o desgracia! Criatubac izanic

aimberte edertasunagaz, eta gracia ain particularaquin, salto
eguin eutsen, dio Ysaiasec, soverbiaco pensamentu batec iguale
tzeco moduren baten Jaincoaz beragaz. Luciferec, eta beste Angue
ruben millaren millarac consentidu euben pensamentu infame
onetan; Baña, ó Jainco baten justicia! consentidu euben ins
tantean, bota cituban oñastarriac leguez, Empirioco alturerati
Ynfernuben ondarreraño; eta Angueru puru, eta chit ederreta
ti, guelditu cirian conventiduric Demonio chit ichusietan, con
denadubac miserablemente zu eternora, dio Sn Matheoc.

O Jainco baten ira! entzuten zagocen pecataria, nola
icaraquetan etzara? Nola confundi[illegible]ten etzara dolo
res onen vistan? Pensamentusco pecatu batec bacarric eguin
bazeben galquera bat ain icaraparria Jaincoen echean, Cerubau
bertan, cé galquera ez euben eguingo zugan, zariana lurrescoa,
aimberte pecatuc, ya pensamentuscoac, ya verbascoac, ya obras
coac? Anguerubac ciriranac, guelditu bacirian conventiduric
Demoniocetan soverbiaco pecatu bategaiti bacarric, zu sayo
ciriana pecatu originalagaiti Demonioaren esclavo, eta arrasque
ro gucitu dituzunazure gain aimberte pecatu soberbien, iraren,
luxuriaren, avariciaren, gularen, eta beste vicioen, certan
conventiduco cirian? Estot reparuric izango esaten, converti
duzarian moduren baten guertoagoan Demonioa baño; eta ra
zoia da ondo clarruba, cegaiti Demonioac ez euben pecatu
eguin Jesu Christoren odolen contra, bada ez euben bota aec
gaiti; baña zuc pecatu eguin dozu odol divino orren contra,
eta dijuana leguez Apostolubac, oñarpinatu dozu, ofendidu
dozun batochean aimberte atrevenciaz. Guertoagoan Demonioa
baño conventidu zara moduren baten, cegaiti Demonioac peca

tu eguin eben, Infernuba egon baño leenago, Jaincoac amenazatu du baño leenago pena onegaz, bere condenaduric egon baño leenago, ceñetan escarmentadu, ecuri baño leenago Jainco bat illic pecatubagaiti: baña zuc pecatu eguin dozu, Jesu Christo illzan ezquero zugaiti, Infernuba dagoan ezquero, Jaincoazen aimberte avisuben ostean, aimberte castigu eta condenaduben ostean, ceñetan escarmentadu bear ceben. Bada Jaincoac parcatu ezpeutsen Aingueruba ciriarai, ezpado, ecé botacituban Abismora euren sorberien penan, cembat guchiago parcatuco deutsu zuri, zaziana urteltamuna bera, eta arrac, biurguetan ezparazara eguiar Jaincoa gaña. Jaincoac berzau zu obeto Aingueru Santuac baño? Ay zu gaz pecataria! Pobrea, infeliza, eta miserablea, demporeac negar eguiten ezpadituzu galguerac, causadu dituban pecatubac zure anima pobrean!

Bigarren saltua emon ebena pecatuben monstruo icaragarri onec izan zan Paraiso terrenalean, eta sucedidu zan modu onetan. Criadu eben Jaincoac Adan gure leenengo Aita estadu chito altu eta perfectisimo baten: guizon baten cabidu diterqueen graciazo eta naturalezazo dote guztiaquin; chito ederra, galanta, eta indartzua, eta guztir gañean santidade bat, eta virtute chit elevadubetacoa. Criaduric Altisimoac ain perfectoa eta admirablea, aguindu eutzan Jaincoac ez eguiala jan señaladu eutzan arbola bateti, eta egoana Paraisoen barrubar. Baña o dolorea. Eva bere Andrea parri zan verwetan diabrubaz serpientien figuran: o cembat vider, ari dan zugaz emacume orren figuran, edo guizon orren tentadu eta persegui etan zabena! Engañadu eben Diabrubac, zubeec ere engañetan daquijana leguez. Jaso eraguin eutzan beguiac arboliana, beguien atceti jarraitu zan escuba, eta azquenez jarraitu zan

ere pecatuba, jaten ebela frutati, eta eguiten ebela, Adan bere senarrac ere jan eguian. Baña ó bocau baltsa! o culpa faltala! Ecus tendozube Adanen desobediencia au, izudian ain ariña, nola jatea sagar bat. bada instante artan jausi zan bere gañean, eta genero humano gustien gañean Jaincoaren maldicioa: Maledicta terra in opere tuo. Orduban jausi zan bere gañean, eta bere descendiente gustien gañean condenaciñoen sentencia, eta gueldituguiñian guizon eta emacume munduban egon eta egongo dirian gustiac privaturic Paraiso celestialeti, Jaincoac redimidu ezpaguindu bere odol preciosissimoen costuna. Orduban gueldituguiñian dignidade altissimoa bagaric, ceñetan izan guiñian criadubac, eta reducidubac izate miserable batera, eta chit diferentea izanguebenetic leenengoan. Oraindio explicaduco naz clarubago. Adan gure leenengo Aitac pecaturic eguin ezpaleu, vicico guiñian guizon gustiac bienaventuranza natural baten. iñoz guizonic ez litzateque ilgo, ez litzateque eusico, ez triste, ta ez pobre; ez zubac erreco guinduque, ez aranzac picauco guinduque, ez venenoac dañauco guinduque, ezpada, ecê gustioc pena ta dolore bagaric vicico guiñateque beti contentus, eta irago bagaric eriotsati juango guiñateque mundu onetic pozatcera Jaincoen Gloria eternoan. Baña pecatu eguin eben Adanec, eta pecatu bacar au izan zan bastante gustia galtzero. Pecatuba da mortalen artean ecusi dirian eta ecusico dirian gaths eta desgracia gustien Causa edo iturraija, dio espiritu Santubac. eta ala ere egon ditecela Christinadubac, cometietan daubenac ain repaubagaric Pecatuba! Cer derechazube esaten ebela santa Maria Madalena de Parisec, egoala iteco? Ni spantetan naz, (esan eban) mundu onetic, aita comprendidu ezin doala iñoz, nola eltzen dan, eta

eta atrevietan dan Christinadu bat pecatu eguitera mortalm.te

Onela mirarituten zan Santa au; eta zubeec mirarituten
esparare, gura dot, arquenez etorri zaitecen neugaz mun
du onetic, eta jachi paitecen siquiera pensamentubaz infer
nurano, dana pecatuben atenguelldia, eta monstruo onen
asquenengo saltoa.

Eguin eguizu bada, contu, pecataria zure guardaco Anguerú
Santubac, erakusten zabela eruti emotera birta bat edo pareo
bat calabozo infernaletati. Ari ecusico dozu pecatuben neu
rria, eta correspondietan jaion castiguba, ectala guchiago
suuno ichaso bat baño, eta suú eternoa; eta izanagaz eter
noa pena au, eta Jaincoac armadu eguian andiena dempo
rari danei, oraindio ectala alcancetan comprendidu ere ezin
leiguela merecietan davena de condigno pecatu mortalic
chiquinenac, consentidutaco pensamenturic ariñenac; ari
ecusico dituzu sarpi certeco arime inumerableac, dagocenac
ireseguita gar tragadore actan: itandu eguiezu, gurabadozu,
cegaiti condenadu dirian, cegaiti dagocen su abrasadore
agan, eta entzungo dozu erantzuten deutzubela: Ay! Ay!
ecé emen gagoz cometidu guebén lenengo pecatu mortal
bacarragaiti, deshonestidade bacar batzucgaiti, eguin guitu
bara batzubac besteaquin umeac guiñanean. Madaricatuac
izan ditecela gure Aitac, Madaricatuac gure Amac, cegaiti
jorde eguinduben orduti, eta cegaiti ifini ez eurcuben
bildur correspondientea pecatu mortal gurtiari: ari ecusico
dituzu ario ta ario, izan ciriranac mundu onetan vici exem
plar eta penitente batecoac, eta itanquetan badeutzezu, cegai
ti condenadu dirian, entzungo dozu erantzuten deutzuba
la: Ay! Ay! urte anoen ostean oraciben, baru, limosna,

eta penitencien, jaun guinian arguenian pecatu mortal baten, pensa
mentu consentidu baten, eta bacarric beragaiti condenadu guinian.
bacarric oregaiti egongo zara inerequita betico. Au ecusico dozu castigue
tan dituban arin cruelmente animeen millaren millarac, dala Jaun
ha bera, iltzana eurac gaiti, Jainco ha bera, redimidu citubana bere
odol preciosissimoen costuza, ha bera, ofrecidu ebena eurac gaiti vicia,
eta ofrecidurico litzaquiana beste milla vici, ametan dituban legez.
Au da, ene entzulac articulu tedecoa, ezin ucatu daiqueguna, A domino
factum est hoc vovis dio Ysaias egandic. Cē mudanzea dā au?
Noc consentidu dau Jaincoen biotz amorosoa arin gogorragan, bar
cacio bagaric, piedade, eta compasinoric bapere bagaric? Oy ene fie
lac, pecatu mortala da mudanza onen causa.

O pecatuba! gaitz gustien ituria, eta castigu gustien prin
cipioa! Pecatubagaiti despobladu zan ceruco parte andi bat; pecatu
bagaiti etorri cirian desdicha gustiac lurrean: eta finalmente pe
catubagaiti experimentetan dira Jainco baten furia, eta miseria
gustiac, eta penaric icaragarrienac Ynfernuban. Noc bada iceara
tuten eta entzunaz eran bacarric pecatuben izena? Justicia divinoac
parcatu ezceuzten Aingueruba, pecatu eguin eubena pensamentu con
sendu bat bacarric, ezpada ece bota cituban bezala Ynfernubetara,
cembat razoe gueiagogaz bildur izan daiquezu zue castigu iguala,
badaizan dira aro andiagoac zure ofensac.

Cer falta da, bada, escaquetia ezpada humildemente parcacioa
ta misericordia? Cer faltada, izago daguizun ezpada vici gustia, negar
eguiten dozula pecatuben maldadea. O pecatu madaricatua, badou,
zara nire perdicino eternoen causa, negar eguin eguizu, ece ondo
daucazu cegaiti negar eguin. Eldu zatez negarrez Jesus Redentoreen
oñetara: resolucino au ezpera dau bere ontasunac, eta idea one
gaz presentetan deutzu Elizeac aparatu arin funestoa. ~~Seguimentu~~

ecuri eguin zaitos pantcita, negar eguiten dabela onela aldaben bertear bere semeen perdicinoa. Negar eguin daigun, bada, baquea eguiteco Jainco ofenditu bategaz, au da guire vide bacarra alcancetaco gracia ta ceruba. Au da deretan deutzubet. Amen.

HAN663

FUNDACION SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA